



## **Inkesta egin duten herritarren gehiengoak azaldu du hondakinen parte bat behintzat bereizten duela**

### ***Inkestak islatzen du herritarrek materia organikoaren bereizketarengatik eta “Atez Atekoarengatik” egiten duten apustua***

Inkestatutako pertsona gehienek (%95,5) azaldu dute etxean sortzen dituzten hondakinen parte bat behintzat bereizten duela. Datua Lasarte-Oriako Udaleko Ingurumen sailak egindako herritarren pertzepzio azterketa baten arabera da.

Inkestak, udalerriko 470 bizilagun elkarrizketatu dituen, erakutsi du ezagutza maila oso ezberdinak daudela hondakinen arabera, hauek izan behar duten norakoari buruz.

Gauzak horrela, lasarteoriatar gehienek (%80) badakite non utzi behar dituzten beira, papera eta kartoia, plastikozko ontziak, eta abar. Hala ere, inkestak adierazten du informazio maila baxua dela (%20 baino gutxiago) bideokaseteak eta CD-ak, fluoreszenteak, kristalezko edalontziak eta plastikozko jostailuak non bota behar diren jakiteko garaian. Portzentajea baxua da baita ere (%20 eta %50 artean) tresna elektriko eta elektroniko txikien, pinturen, disolbatzaileen eta bernizen norako egokia adierazten dutenen artean.

Informatuta dauden pertsonen azaldutako portaerari dagokionez, badira hondakin batzuk oso ohitura egokia erakusten dutenak beren bereizketari erreparatuz (%90 baino gehiago): zeramika, pixoihalak, kartoia, beira, latak, egunkariak, aldizkariak, pilak, ...; egokia (%90 eta %85 artean): porexpan, oinetakoak, kristalezko edalontziak, ...; eskasa (%81 eta %75 artean): plastikozko jostailuak, tresna elektriko eta elektronikoak, olioak, bideokaseteak, CD-ak, ...; eta oso eskasa (%69): pinturak, disolbatzaileak eta bernizak.



Laburbilduz, ohituretan ezberdintasun handiak daudela ondorioztatzen da, batez ere, norako egokiaren ezagutza mailetan hondakin motaren arabera. Informazio falta lantzea funtsezko neurri gisa azaltzen da bereizketa eta birziklapena hobetzeko.

### **Atez atekoaren alde**

Printzipioz, ikerketak gehiengoaren atez atekoaren aldeko jarrera erakusten du (%51 alde, %24 kontra).

Inkestatutako pertsonen hiru bostenak baino gehiagok azaldu du desiragarri (%45,1) edo oso desiragarri (%16,4) ikusten duela gure udalerrian atez ateko sistema sustatzea.

Iritziak alde batera, herritarrak atez ateko sistemara egokitzeko prestu daudela islatzen da, izan ere, elkarrizketatutako zortzi pertsonatik zazpik uste dute atez ateko bilketa jarriko balitz horretara egokituko liratekeela.

Era berean, agerian geratzen da materia organikoaren bilketa selektiboaren aldeko iritzia. Konpostajeak oso emaitza positiboak eragin ditu, izan ere, %94,4 alde agertzen da neurri hori administraziotik sustatzeko.

Atez ateko bilketaren eta konpostajearen aldeko jarrera hau lotuta dirudi Zubietako errausketa plantaren proiektuaren errefusari, ia ahobatezkoa dena. Elkarrizketatutako bost pertsonatik lau Zubietako errausketa plantaren proiektuaren kontra daude. (Populazioaren %48 errausketaren kontra agertzen da, beste %33 bat kokapenaren aurka dago).